

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2012ko abenduaren 21a. IX. urtea. 2.455. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



## Odolki egilerik onenari saria emango diote Tolosako azokan

Gabonetako azoka berezia izango da bihar, San Frantziskon, Trianguloan eta Plaza Zaharrean **02**

## Harri Handien Txapelketa izango da igandean, Asteasun

Aimar Irigoien, Joseba Ostolaza eta Jokin Eizmendi ariko dira 12:30etik aurrera **02**

## Finlandiera, gertuago

Euskara-suomiera hiztegia argitaratu du Suomitar Euskal Herria-Finlandia kultur elkarteak; 15 eurotan eskuratu daiteke lana **03**

## Alain Montilla tolosarraren ez ohiko argazki erakusketa, Alegian

Erretirodunen tabernan urtarrilaren 31 bitartean egongo da; erosteko aukera dago **04**



Alegian ikus daitekeen Montillaren lanetako bat I.G.L.

### Oharra

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariko lan taldeak jai izango du Gabonetan, abenduak 24, eta Eguberri egunean, abenduak 25. Ondorioz, hurrengo TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren alea abenduaren 27an jasoko duzue.

## ZUNTZA DA AURTENGO GABONETAKO IZARRA

**BENETAKO 20 MEGA + PREMIUM TBA + finko eta mugikorretarako deiak**

**Hilean 35,8€ soilik** ordainduta, urtebetez.

Alta eman **urriaren 5a** baino lehen

Logikaline **943 31 86 11**

**ezkarrak** **benetako ofiziala**

2013/01/05a baino lehen Euzkateren Zuntz Cofitekoan alta ematen dutenentzat bali da sustapen horiek. 15.000ko deskontua 20 Mega Du-Cofitean eta Premium Tekebetaren bitartean kutsatzen, eta 3,48. No deskontua linearen kutsatzen, datorren den egunerik hasi eta 12 hobeak aplikatuz. Zuntzean eta finkoan 12 hobeak iruzteko konpromisoa. Batez beste abantegiak: 15 € produktua eta beste gabonetako hobeak bostak. Batez beste aldi erabiltzeko iruzteak 4.000 minutu eta erabiltzeko mugikorretarako deiak 60 minutu. Zuntz Cofitekoan iruzteko berriztatze soilik da dagoenik eta Deskontuak ez dago sartuta. Premium Zerbitzu teknikoan dagoen lehen 3 hobeak: 1. kutsatze, 2. kutsatze, 3.5 € eta hobeak: 30,2 € dago sartuta. Mugatu 1/5-are.

# Tolosako kaleak postuz beteko dira

Bihar Gabonetako azoka berezia izango da; ohiko postuz gain, beste hainbat izango dira herrian zehar

**Eneritz Maiz** Tolosa

Izen eta ospe handiko azoka da Tolosan egiten den Gabonetako Azoka Berezia. Bihar izango da, eta Tolosako kale eta plazak hainbat postuz beteko dira. Hiru gunerak erabiliko dira azoka berezia egiteko: San Frantzisko pasealekua, Trianguloa plaza eta Plaza Zaharra. Hauez gain, ohiko larunbateroko merkaturako erabiltzen direnak ere postuz beteta egongo dira: Zerkausia, Berdura plaza eta Euskal Herria plaza.

San Frantzisko pasealekuan, era guztiak jaxiak egongo dira salgai: ahatekiak, kontserbak, gozoak, eztiak, gazta... Jakiez gain, artisauek landutako lanak ere izango dira: pilotak, bitxiak, egurrezko jostailuak, oinetakoak,



Odolki egilerik onenaren izena 13:00etan esango dute, Trianguloan. A. IMAZ

makramea... Aipatu gabe ezin utzi, Tolosa Merkat proiektuak ere bere tokia izango duela azokan, artisauek postu batekin.

Plaza zaharrean animalien erakusketak antolatuko dira, eta euskal txerria, enkarterrietako astoa, azpi gorri ahuntza, euskal oiloa eta aurtengo berrikuntzen artean, alpakkak izango dira. Era berean, Bidanitik ekarritako euskal txerriaren produktuak erosteko aukera izango da. Trianguloa plazan, aurten ere, barazkiak eta

fruituak izango dira protagonista. Horrez gain, eztiak, ahatekiak, gazta, txokolatea eta ardoa ere erosteko aukera izango da. Beraz, Gabon egunetarako erosketak egiteko aukera zabalago izango da.

## Odolki Lehiaketa

San Blas Elkartearen laguntzarekin, Odolki Lehiaketa egiten da. 08:00etan lehiaketa parte hartuko duten harategietako odolkiak sutan jarriko dituzte, eta momentuz, 12 parte hartzailek eman

dute izena: Mujika odolkiak, Jesus Mari Deba odolkiak, Kepa Loidi Harategia, Garikano harategia, Obrador Loidi, Olano harategia, Javier Otegi, Txarri Txiki harategia, Muñagorri harategia, Sukia harategia, Julian Mujika harategia eta Mahala. Lehiaketa parte hartu nahi duenak 94369 75 21 telefono zenbakira deitu dezake, eta gaur 13:00ak baino lehen egin beharko du. Bihar, 13:00etan jakingo da aurtengo Odolki Lehiaketako irabazlearen izena.

Azoka berezia izan arren, ezin dira ahaztu astero-astero Zerkausian baserriar produktuekin dauden saltzaileak; Berdura plazan izaten diren lore eta landare saltzaileak eta Euskal Herria plazako merkatuko saltzaileak. Hauek ere, larunbatero bezala, asteroko merkatua izango dute.

Esker ona adierazi asmoz, Fronton jatetxeak prestatuta, asteroko azokan egoten diren saltzaileei urte guztian egiten duten lana nolabait eskertu asmoz, konpota banatuko die.

## Oria elkarteak egitarau oparoa prestatu du

Amasa-Villabonako merkatarien eskutik gaur haurren parkea izango da eta bihar egun guztiko egitaraua

**E. Maiz** Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Oria Merkatarien elkarteak gaurko eta biharko egitarau berezia antolatuko du. Gaur, 16:30etik 19:30era, Berzana pilotalekuan Gabonetako parkea egongo da.

Bihar, saltokiak arratsalde irekita egongo direla jakinarazi dute, 17:00etatik 20:00etara. Era berean, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte. 11:00etatik 13:00etara,

Txistulari plazan Kulki euskal jokoak izango dira, eta 17:00etatik 18:00etara, udaletxeko plazatik abiatutako Bapatean taldea ibiliko da akrobaziak eginez. 18:00etatik 20:00etara, berriz, Berdura plazan, haurrentzako tailerrak egongo dira.

Gainera, pintxo potea antolatuko dute 18:30etik 21:30era, eta urtarirlearen 5ean ere errepikatuko dute. Taberna hauetan izango da: Arnasa, Xiker, Or Konpon, O' Baba, Rk, Rbote, Iratzar, Xaldu, Txapelkun eta Gerezin. Txartelak Villabonako saltoki bazkide-dunetan erosi ahaliko dira. Larunbat horietan egiten diren erosketek sari berezia eskuratzeko aukera dute. Bi lagunentzako lau-na afari zozketatuko dituzte.

## Harri Handien Txapelketa jokatuko da, igandean, Asteasun

Irigoi, Ostoloz eta Eizmendiaren arteko lehia 12:30ean hasiko da; lau harrirekin egin beharko dute lana

**E. Maiz** Asteasu

Igandean, hilak 23, Euskadiko Harri Handien Txapelketa jokatuko da, Asteasun. Hiru harri jasotzailek parte hartuko dute: Aimar Irigoien errezildarrak, Joseba Ostoloz zestoarrak eta Jokin Eizmendi zarauztarrak. Hiru harri jasotzaileek, lau harrirekin egin beharko dute lana. Horretarako, 200 kiloko errektangularrak, 375 kiloko zilindroak, 150 kiloko kubikoak eta 125 kiloko bola izango dituzte zain.

Harri jasotzaile bakoitzak hiru minutuko denbora izango du harri bakoitzarekin ahalik eta jasoaldi gehien egiteko. Txapelketako irabazlea, ordea, kilo gehien bizkar gainera jasotzen dituena izango da. Hau da, harri bakoitzarekin egindako jasoaldien batura egingo dute. Txapelketa 12:30ean hasiko da pilotalekuan, eta ikusi nahi duenak 10 euro ordaindu beharko du sarrera.

## Altzon eta Tolosan ere ikurrinaren aldeko aldarriak egingo dituzte

Espainiako banderaren inposaketaren aurrean, Altzon igandean eta Tolosan astelehenean, ekitaldiak egingo dituzte

**E. Maiz** Altzo / Tolosa

Eskualdeko herri gehienetara iritsi da Espainiako bandera jartzeko agindua. Hori dela eta, herri askotan ikurrinaren aldeko ekimenak antolatzen ari dira. Kasu honetan, Altzon eta Tolosan izango dira.

Altzon, igandean, hilak 23, herriarrei 12:00etan herriko plazara agertzeko deia egin diete. Bertan, ikurrinari omenaldia egingo diote, herriko alkate eta zinegotzietan babesa adieraziz. *Inposaketarik ez, geurea ikurrina* lelopean elkartuko dira.

Astelehenean, tolosarren txanda izango da. 17:00etan, Trianguloa plazan elkartuko dira «inposaketaren aurrean, gure erabateko desadostasuna aldarrikatzeko», adierazi dute. Postalak eta ikurrinak banatuko dituzte, borondatea eskatuz. Herritarrei egun berezi honetan parte hartzeko deia egingo diete.

## → Laburrak

### Caja Laboral Baskonia eta Olympiacos ikusteko aukera

**TOLOSA** › Hilaren 27an, ostegunean, Caja Laboral Baskoniak Olympiacos taldearen aurka jokatuko duen partida ikusteko irteera antolatuko du TAKEk. 1998 edo beranduago jaiotakoek 15 euro ordaindu beharko dute, eta 1997. urtean edo lehenago jaiotakoek, aldiz, 20 euro. Partida 20:30ean izango da. Izen emateko, [takesb@takesb.com](mailto:takesb@takesb.com) helbidera mezu bat bidalizi egin daiteke. Diruaren ordainketa klubeko edozein entrenatzailei ordaindu egin beharko da. Garaiz ordaindu ezean, zerrendan zain dagoen hurrengoari emango zaio aukera.

### Hilaren 26an hasiko da XXXI. Shanti Trofeoa

**TOLOSA** › Eguberrietako 31. Shanti Trofeoa hilaren 26ean, asteazkenean, hasiko da. 60 talde izango dira parte hartuko dutenak: alebin mutilak 20 talde, alebin neskek 11 talde, benjamin mutilak 26 talde eta benjamin neskek 3 talde izango dira. Partiden egutegia, Shanti kirol dendan edota Usabal kiroldegian ikusi daiteke.

### 72 pertonek parte hartu dute Harizpeko jokoetan

**TOLOSA** › Harizpe elkarteak urtero egiten ditu jokoak, eta aurtengoek ere badituzte bere irabazleak. Musean lau erregitarako karta jokoa Urkia eta Irazu eta zortzi erregitarako, Brit eta Wences. Puntu jokoa, Lucia eta Ana, eta Dominoan, Pajares eta Ortiz. Tutean Gallego eta Gordillo izan dira nagusi, eta Tokan, Aizpun emakumezkoetan, eta Ortiz gizonezkoetan.

### Emakumea pilotariko finalerdiak, Beotibarren

**TOLOSA** › Larunbat arratsaldian Beotibar pilotalekuan Ezker Hormako Emakumea Pilotari Txapelketako finalerdiak jokatuko dira. Jaialdiko lehenengo partida, Jubenilen elkarrean artekoa izango da. Bigarren partida, nagusien mailako 2. mailakoa izango da, eta azken partida, maila nagusiko lehen mailako finalerdia.

### XV. Elkartasun Krosean izena eman daiteke

**TOLOSA** › Hilaren 31n izango da Samanigo eta Orixe ikastetxeek antolatzen duten elkartasun krosa. Izena, hilaren 29ra bitartean, Aralar kirolak dendan eman daiteke, 6 euro ordainduz.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Euskal Herria eta Finlandia elkartu ditu bi herrietako hizkuntzen hiztegi batek

Suomitar Euskal Herria-Finlandia elkarteak bere hiztegia aurkeztu du Antxon Bandres Bidaiarien Txokoan

**Imanol Garcia Landa** Tolosa

Tolosak eta Finlandiak elkarren arteko loturak badituzte. Antxon Bandres tartean zela, lagun talde bat joan zen Finlandiara 1974ean, eta hamar urte geroago beste bidaiari batzuk joan ziren, tartean Josu Iztueta. Azken honek egin zuen sarrera Antxon Bandres Bidaiarien Txokoan herenegun arratsaldean egindako euskara-suomiera hiztegiaren aurkezpenari. Suomitar Euskal Herria-Finlandia kultur elkarteak argitaratu berri du eta bertako hiru kide izan ziren aurkezpenean: Joseba Ossa eta Mia Rissanen senar-emazteak eta Xila Pihlstrom. Bi herrien arteko harremanak bultzatzeko eta gertuago izateko helburuarekin egin dute hiztegia, eta hain justu, elkarte bera hiztegia osatzeko asmoz sortu zuten.

Bi herrialdeen arteko ahaide-tasun harremanik ez badago ere, biek dute zerbait komunean, aurkezpenean azaldu zuten: «Biak dira Europako hizkuntza ez-endo-



Joseba Ossa, Xila Pihlstrom eta Mia Rissanen, aurkezpenean. IGL

europar bakanetakoak. Euskaldunok hizkuntzaren aldetik ahaiderik gabe gauden moduan, suomitarrek badute familia bat: finougriarrak, hungariarra, estoniera, samiera eta beste hainbat hizkuntza txiki osatua».

Hiztegia «txikia eta apala» dela esan zuten. Guztira 8.700 sarrera inguru ditu, eta izaera praktikoa eta erabilerraza eman nahi izan diote. «Gramatika mailaketak eta jakintza alorrak, adibidez, ezinbestekoak iruditu zaizkigunean baino ez ditugu sartu», zehaztu zuten. Hainbat esaldi ere jarri dituzte, bidaiaren batean moldatu ahal izateko. Finantzaketari dagokionez, erabat beraien lanaz eta finantzaketaz egin dute, kanpoko

inongo laguntzarik gabe, urte askotako auzolanaren formularen bidez.

Suomitar kultur elkarte 2001ean sortu zuten, Euskal Herrian, lehendik Finlandian lanean ari zen Suomi-Euskadi elkar-tearen lanarekin jarraitu, eta bi herrien arteko zubigintzan aritu nahian kultur alorrean. Hiztegiaren aurkezpenan Finlandiari buruzko hainbat datu eta informazio ere eman zituzten. Hiztegia 15 eurotan dago salgai Donostiako Hontza eta Donosti liburu dendetan eta aurki [www.argia.com](http://www.argia.com) webgunearan dendan salgai izango da. Informazio gehiago elkar-tearen [www.suomitar.org](http://www.suomitar.org) webgunearan eskuratu daiteke.

# Bilduk urtarrilaren 12ko manifestaziora joateko deia egin du

Tolosaldeko hainbat alkate eta hautetsik bat egin dute euskal presoen eskubideen aldeko mobilizazioarekin

**I. Garcia Landa**

Euskal presoen eskubideen alde urtarrilaren 12an Bilbon egingo den herri mobilizaziorako atxikimendua eman diote Tolosaldeko Bilduko hautetsi eta alkateak, atzoko Adierazpen Egunaren harira. «Gure besarkada bero eta kuttunena eman nahiko genieke ziegatan zein erbestean daudenei», azaldu dute Bilduko kideek. Etor-kizunera begira daudela, eta horrek «guztien eskubideak behin betikoz errespetatzea» eskatzen duela diote.

Gatazka politikoaren «askotariko ondorioei eustea, hauei konponbidea ematea», ezinbestekoa

dela gaineratu dute, «bizi ditugun itzaropen garai hauetan». Konponbidearen bidean, «gatazkaren ondorio diren preso eta erbestertuen egoeran arreta jartzea ezinbestekoa dela uste dugu», esan dute. «Pairatzen ari diren egoera krudela da benetan eta horregatik dei egiten diogu eskualdeko herritar orori gurekin batera hilaren 24ean Tolosan, 31n Aiztondo bailaran eta hainbat herritan burutuko diren ekimenetan parte hartzera», gaineratu dute Bilduko kideek, eta urtarrilaren 12an Bilbon burutuko den herri mobilizazioan egoteko gonbita egin dute.

## Atxikipen mosaikoa

Bidegoiano eta Errezilgo herri-tarrek atxikipen mosaikoa egingo dute igandean, hilak 23, 12:00etan Errezilgo plazan. Bertan, Bilboko urtarrilaren 12ko manifestaziora joateko deia egingo dute.

## → Laburrak

### Zabor bilketari buruzko oharra, Gabonak direla eta

**BIDEGOIAN** Gabonak direla eta, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean ez da zabor bilketa zerbitzurik egongo Bidegoianen. Egun horietan herria txukun izateko ondorengo neurriak hartzea eskatu die herritarrei Urola Erdiko mankomunitateak: abenduaren 24ean eta 31n zabor poltsarik ez ateratzea, eta abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean zabor poltsa 20:00etatik aurrera ateratzea.

### Iraupen lasterketa Tolosa Indoor Kartingean

**TOLOSA** Tolosa Indoor Kartingean iraupen lasterketa egingo dute hilaren 23an eta 24an. Orduetgia 21:45etik 23:30era izango da. Hiru pertsonako 16 taldek parte hartu ahaliko dute, eta pertsona bakoitzak 20 euro ordaindu behar ditu. Izena [www.themotorplan.com](http://www.themotorplan.com) helbidetan eman behar da.

# San Tomas azoka eta Txerri Festa ospatuko dituzte Abaltzisketan

Txerri Festan txerri puskak jateko aukera izango da, eta azokan hainbat produkturen postuak egongo dira

**I. Garcia Landa** Abaltzisketa

Abaltzisketako Udalak, abendu-ko kultur ekitaldien barnean, Txerri Festa antolatatu du gaurko

## ↓ Iragarki laburrak

### LAN ESKAINTZA

**Zerbitzaria.** Tolosan, barrako zerbitzari euskaldun profesionala behar da, Inauterietan 12:00etatik 22:00etara lan egiteko. Interesatuak, deitu 646 376092 telefono zenbakira.

Era berean, Txalburu eskolak San Tomas azoka egingo du izen bereko egunean. Txerri Festa 10:00ak aldera hasiko da eta goizean zehar txerri puskak jateko aukera izango dute plazara joaten diren guztiek.

Bestalde, eskolak antolatutako

azokan hainbat postu izango dira: barazkiak eta fruituak, baserriko animaliak, eskulanak eta etxeko postreak. Eguna alaitzeko bertsolariak izango dira. Udalak eta Txalburu eskolak herritar guztiei egin diete gonbidapena ekitaldietan parte hartzeko.

**Langile euskaldun bat behar da INGELESEKO akademia batean arratsaldez lan egiteko**

-Ezinbestekoa da ADVANCE edo B2 perfila izatea  
-Ezperientzia baloratuko da

Interesatuak deitu zenbaki honetara: 680 273 544

**EDARITEGIA**  
**Egarrri**  
**OSTIRALEKO MUS TXAPELKETA**  
**23:00ETAN**

**SARIAK**

1. saria: bideruko diruaren 9650  
2. saria: bideruko diruaren 9630  
3. saria: bideruko diruaren 9620  
4.saria: 2 ardo botila

HERI OSTIRAL JARRAIAH BARAZIE BERRI  
SARTE JATETEAN  
BI PERTSONENTZAKO OTORAZA

ERROSDIDA, 7 ZIZURKIL Tel.: 943 69 62 57



## 1a 100 pilotarik hartuko dute parte Gabonetako XI. Pilota Topaketan

Hilaren 26an eta 27an egingo dituzte kanporaketak eta hilaren 29an jokatuko dira finalerako partidak

**I. Garcia Landa**


Gabonetako XI. Pilota Topaketa antolatuta dute Intxurre Pilota Eskolak eta Alegia, Altzo, Ikaztegia eta Amezketako guraso elkar-teen. Guztira 98 pilotarik eman dute izena topaketan parte hartzeko, bost mailatan banatuak: benjamin aurrekoak (2005 eta 2006an jaioak), benjaminak (2003 eta 2004an jaioak), alebinak (2001 eta 2002an jaioak), infantilak (1999 eta 2000an jaioak) eta kadeteak (1997 eta 1998an jaioak).

Hilaren 26an ekingo diote topaketari. 15:30ean Alegiako frontoian elkartuko dira parte hartzaile guztiak, eta bertan familia argazkia aterako dute. Finalen

egunean parte hartzaile guztiei banatuko zaien egutegia egiteko erabiliko dute argazkia. Hala, parte hartzaileak zuriz jantzita jokatuko eskatu dute antolatzaileek. Behin argazkia aterata, maila bakoitza frontoi batera joango da kanporaketa partidak jokatuzera.

Hilaren 26an eta 27an jokatuko dira kanporaketa partidak. Alegian, 16:00etan hasita, benjamin aurrekoak eta kadeteak ariko dira. Benjaminak Amezketan ariko dira, 16:00etan hasita bi egunetan. Alebinak Altzon jokatu dute, ordu berean hasita. Azkenik, infantilak Ikaztegiatan lehiatuko dira, eta hauek ere 16:00etan ekingo diote partidei. Finalak Ikaztegiatako frontoian jokatu dira, hilaren 29an, eta hauek ere 16:00etan hasiko dira.

Partida guztiak, maila guztietan, 12 tantotara jokatu dira. Materialari dagokionez, kadeteek pilota mistoarekin jokatu dute, eta gainerako mailako pilotariak pilota goxoekin ariko dira.



Alain Montillaren erakusketa ikusi daitezkeen zenbait lan. HITZA

### → **Laburrak**

#### **Poca-Tripa txarangak 50 urte bete ditu**

**TOLOSA** » Poca-Tripa txarangaren 50. urteurrena ospatzeko idatzitako liburua aurkeztuko da hilaren 26an, 16:00etan, haurrentzako pailazo eta ipuin kontalaria izango da. Hilaren 27an, 16:00etan, zine emanaldia izango da kultur etxean. Hilaren 28an, 15:30ean mendirteera adin guztientzako, 18:30ean Ozenki abesbatzaren kontzertua San Juan elizan, eta 20:15ean urdaiazpiko mozketaren erakustaldia eta pin-txoak, eta gero gaztaina jatea.

#### **Kultur astea, Belauntzan, hilaren 26tik 28ra**

**BELAUNTZA** » Kultur astea antolatuta dute Belauntzan eta hilaren 26tik 28ra egingo dituzte ekitaldiak. Hilaren 26an, 16:00etan, haurrentzako pailazo eta ipuin kontalaria izango da. Hilaren 27an, 16:00etan, zine emanaldia izango da kultur etxean. Hilaren 28an, 15:30ean mendirteera adin guztientzako, 18:30ean Ozenki abesbatzaren kontzertua San Juan elizan, eta 20:15ean urdaiazpiko mozketaren erakustaldia eta pin-txoak, eta gero gaztaina jatea.

## Ukitu bereziko argazkiak

Alegiako erretirodunen tabernan ikusgai dago, urtarrilaren 31 arte, Alain Montillaren argazki erakusketa

**Imanol Garcia Landa** Alegia

Alain Montilla tolosarraren argazki erakusketa ikusgai dago Alegiako erretirodunen tabernan. Montillarena ez da ohiko ar-

gazki erakusketa, ukitu berezia baitute lanetako batzuek. Argazkien tratamendurako programa bat erabiliz berak nahi duen ezauzgarriren bat nabarmentzen du eta, zenbaitetan, aldatu egiten du. Horren adibide da, argazkietako batean ikusten den ibaia eta ondoan duen harri pila. Harri bakoitzari kolore bat eman dio, eta erreka txuri beltzean utzi du, efektu berezia sortuz.

Montillak garbi du argazki bat ateratzerakoan zer baiten bila joa-

ten dela: «Joaten naizen tokietako argazki bereziren bat ateratzea gustaten zait». Leku horretako txoko bat, ikuspegi jakin bat edo giro bereziren bat jasotzen ditu bere kameran.

Argazkigintza ikasi zuen eta hortik abiatuta joan da sortzen bere lana. Gurasoekin batera Tolosako Aralart denda du eta bere obrak hor erakusten eta saltzen hasi zen. Multzo bat egin zuenean, erakusketak egiteko aukera aztertzen hasi zen, eta dagoeneko bere lanak erakutsi ditu Orion eta Tolosako bi tabernatan.

Argazkien moldaketaz gain, beste ezaugarri bat ere badu bere lanak: argazkiak erakusteko hainbat material erabiltzen du. Batetik, ohikoa den argazki pape-rra. Bestetik, termoselatuak. Margolanetako oihala ere erabiltzen du, eta argazkia aurretik tratatu eta gero, azken emaitzak argazkiarena baino margolanaren itxura hartzen du. Bitxi-ena, agian, zenbait argazki erloju bilakatzen dituela da, hau da, argazki bat erabiltzen du horma-erlojuak egiteko. «Deigarria egiten zaio jendeari erlojuak ikusten ditue- nean», dio Montillak. «Materialak ere distira berezia izaten du».

Erakusketa urtarrilaren 31 arte dago ikusgai erretirodunen tabernan. Bertan dauden lanak salgai daude eta bakoitzak txartel bat du bere prezioarekin.

**elduaian** **Zorionak eta Urte Berri-On!!**

UNIVERSITY of CAMBRIDGE  
ESOL Examinations  
Authorized Centre

**www.elduaian.com**

**Herrira II. Mus Txapelketa**

**Abenduak 22, larunbata 16:00etan Billabonako Zentroan**

Apuntatzeko: 15:30etatik aurrera  
20€ bikoteko

**SARIAK:**

1. Arkumea, Geraikurrak eta Eusko produktuz osaturiko bi saski eder.
2. Bi Txuleta, Geraikurrak eta beste bi saski.
3. Baserriko bi oilasko eta bi saski.
4. Bi Gazta eta bi ardo botila.

Laguntzaileak: **TOLOSALDEKO HITZA**



**1000 €**

**1000 €**

**1000 €**

**Tolosa&Co**  
MERCATARIAK-OSTALARITZA-ZERBITZUAK

**EGUBERRIETAKO PROMOZIOA**  
**3 txeke 1000 €**



# Ohituraren eta oparien egunaren zain

Orantzaroren enborra erreko dute Leitzako herritarrek abenduaren 24an, astelehenean, jai giroan

## Asier Imaz

Mari Domingi, Olentzero eta Orantzaroa iritsiko dira astelehenean. Bata zein bestea etorri, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan ospakizun eguna izango da abenduaren 24a. Bi egun falta diren honetan, ongi etorri eta harreara guztiak prest daude. Herritarrek eta herrietako eragileek, euren ekarpenekin alaituko dute asteleheneko eguna. Ez dira gutxi goizean goiz kantuan hasiko direnak, eta horien artean, Herrira aipatu behar da. Egun horretan biltzen duten dirua, egun hauetan etxeetatik urrun egongo diren euskal preso eta iheslarien eskubideak defendatzeko izango da.

## Leitzan, Orantzaroa

Olentzerori Orantzaroa deitzen diote leitzarrek, aspaldidanik. Duela hirurogei bat urtera arte, etxe eta baserri gehienetan familia bakoitzak bere panpina pro-

pioa jartzen zuen balkoian edo leiho batean. Panpina hori emakumezko zein gizonezko itxurakoa izan zitekeen, eta ez beti ikazkina; txistularia, arrantzalea, artzaina, ehiztaria, jostuna, sorgina edo ezpata dantzaria izan zitekeen. Ohitura hori berreskuratzeke, Leitzako Altzadi Kultur Elkarte gogotik ari da lanean, azken urteetan. Lehenik eta behin informazioa biltzen hasi ziren Altzadikoak, herriko zaharrenekin hitz eginez. Hauek ohituraren berri ematean, zabalkuntza lana hasi zen.

*Olentzero.net* webgunean ederki azaltzen den bezala, aspaldian Orantzaroa denbora tartetartean, solstizioarekin lotua. Oro har, honen inguruko errietoetan suak paper garrantzitsua izaten zuten Europako toki askotan. Eguzkia berritzeko eta hari indarra eman nahian edo, su bereziak pizten zituzten gure arbasoek. Suaren bidez, eguzkiari lagundu egiten zitzaion argia eman zezan, eta bizi-bizirik egon zedin. Horrela, oso ohikoa zen enbor berezi bat erretzea egun horretan.

Gure arbasoen ohiturak indartze aldera, aurrean ere, Orantzaroren enborra erreko dute leitzarrek, abenduaren 24an.



Leitzan Orantzaroren irudia herriko balkoietan jarriko dute. HITZA

## ↓ Mari Domingi eta Olentzero edo Orantzaroren etorrera, herriz herri

### ABALTZISKETA

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**Egun osoan zehar.** Plazan elkartu eta Gabon kantak abesten pasako dute eguna.

### ADUNA

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**08:00.** Muxkileko taldea kantari abiatuko da baserri baserri.  
**09:30.** Eskolako haurrak etxetik abiatuko dira. Itzuleran, Olentzerok eskolan utzitako opariak zabalduko dituzte.  
**Egurdian.** Haurren hamaiketako Txulobin.

### ALBIZTUR

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**09:30.** Haur eta gurasoak plaza elkartuko dira. Gazteak baserri baserri ariko dira.  
**19:00.** Olentzero kalejiran abiatuko da eta udaletxeko arkupean hartuko ditu haurrak.

### ALEGIA

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**11:00.** San Juan eskolako ikasleak herrian abestuko dute.  
**18:00.** Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Eskola aurrean egingo diete harrera, eta Txintxarri abesbatza kantari ibiliko da.

### ALKIZA

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**09:00.** Olentzero eskolara joango da. Ondoren, herrian barrena kantuan ibiliko dira.

### ALTZO

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**10:00.** Altzo Azpin elkartuko dira guraso, irakasle eta ikasleak, eta etxetik abesten ibiliko dira.

### AMEZKETA

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**08:30.** Herrirak antolatuta plaza elkartuko dira, baserri baserri kantuan ibiltzeko. Ugartera iristean bazkalduko dute.  
**Goizean.** Ugarteretik eskolako

helduenak irtengo dira kantuan. Ondoren, herrira iristean, ikasle, guraso, eta irakasleak elkartuko zaizkie.

**17:15.** Herrirak antolatuta, Jaurerri Handi baserri kantuan ibiltzeko dira, herrigunera iristeko.

### ANOETA

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**16:30.** Auzoz auzo kantari. Anoetako Herrirak antolatuta.  
**18:00.** Olentzero eta Mari Domingi Isastitik irtengo dira. Plazan egingo zaie ongi etorria Loatzo Musika Eskolak, Gazte Asanbladak, Anoetako Dantza Taldeak eta Herrirak hartuko dute parte. Ondoren, Olentzerok eta Mari Domingik gozokiak banatuko dituzte.  
■ **Abenduak 25, asteartea**  
**12:30.** Anoetako Txistulari taldearen kalejira.

### ARESO

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**11:00.** Udaletxetik abiatuta, kalez kale, eskean ibiliko dira. Biltzen den dirua beharrez dauden haurrentzat izango da.  
**18:00.** Mañenea etxeko atarira Olentzero iritsiko da trikitilari eta guzti.

### ASTEASU

■ **Abenduak 23, igandea**  
**11:30.** II. Jostailu Truke Azoka udaletxeko arkupean. Eguraldi txarra bada, udaletxean.  
■ **Abenduak 24, astelehena**  
**10:00.** Gabon kantak abesteko elkartuko dira.  
**12:00.** Olentzero frontoira iritsiko da.

### BALIARRAIN

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**10:30.** Herrian barrena haurrak kantari ibiliko dira.  
**14:00.** Herritarak, haur eta helduak, San Juan ingurura joango dira kantari, bertan, Olentzerorekin egingo dute topo.

### BEDAIO

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**Egurdian.** Auzo bazkaria.

**Ondoren.** Baserri baserri kantuan ibiliko dira.

### BELAUNTZA

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**15:30.** Kultur etxe inguruan biltzeko dira, herrian barrena kantari ibiltzeko.  
**17:00.** Olentzero San Juan elizako zimitoria iritsiko da. Belauntzako 2 eta 12 urte bitarteko haur bakoitzari opari bana emango die.  
**Ondoren.** Kultur etxean merienda.

### BERASTEGI

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**09:00.** Plazan elkartu ondoren kalejiran herrian barrena ibiliko dira. Nahi duenak aparkaleku azpiko lokalean bazkaltzeko aukera izango du; janaria norberak eraman beharko du, eta edariak eta kafea Guraso Elkartearen eskutik izango dira.  
**15:00.** Berriz ere plaza elkartuko dira kantuan ibiltzeko.

### BERROBI

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**Goizez.** Herriko ume eta gurasoak etxetik abesten ibiliko dira Gabonetako kantak abestuz.  
**18:00.** Olentzero iritsiko da herrira.

### BIDEGOIAN

■ **Abenduak 21, gaur**  
**10:30.** Olentzero eta Mari Domingi Txinkorta eskolara joango dira. Eskualdeko herritar guztiak gonbidatu dituzte festara: apaingarriak, Gabonetako kantak, opariak eta abar egongo dira.  
■ **Abenduak 24, astelehena**  
**Goizez.** Bidanien zehar ibiliko dira kantuan.  
**Arratsaldez.** Goiatzen jarraituko dute.  
**18:30.** Goiatzeko frontoira Olentzero eta Mari Domingi iritsiko dira.

### ELDUAIN

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**15:00.** Plazan elkartuko dira



sarrerak

2 sarrera

**LAGUN ARO GBC**

RealMadrid

saskibalo partida

Abenduak 23 - Igandea  
12:15  
Donostako Iurretan

2 sarrera

Herrira Villabona:

Poesia eta kantu emanaldirako

Ana Maria Usandizaga

Altuna (Alegia)

\*sarrerak lehiatzen hasi diren txartelarekin

Abenduak 23 - Igandea  
18:30  
Villabonako Gurea zinema





## ↓ **Mari Domingi eta Olentzero edo Orantzaroaren etorrera, herriz herri**

herrian barrena kantuan ibiltzeko. Bihar, 16:00etan, entsegua egingo dute kultur etxean.

### GAZTELU

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**18:30.** Olentzero eta Mari Domingi jaitsiko dira Larte menditik plazara.

### HERNIALDE

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**09:00.** Bentatik hasten dira abesten eta herri osoa zeharkatzen dute.



Mari Domingi atzo izan zen Villabonako Jesusen Bihotza ikastetxean. HITZA

**18:45.** Olentzero frontoira iritsiko da.

### IBARRA

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**09:30.** Herrirak antolatuta, Xeplan gosaria. Ondoren, kantzera irtengo dira preso eta iheslarien alde. Arratsaldean Tolosako manifestaziora joango dira.  
**18:15.** Hauspoak antolatuta, Olentzero eta Mari Domingi hilerritik jaitsiko dira herriko plazara. Bertan, Loatzo Musika Eskolakoek, Alurr datza taldekoek eta parrokiko koroak harrera egingo diete. Haurrei goxokiak banatuko zaizkie.

### IKAZTEGIETA

■ **Abenduak 24, astelehena**

**08:30.** Kirodegiko aparkalekua aterako dira eta kantuan ibiliko dira lehenik baserriz baserri, eta gero herri gunean, Herrirak antolatuta.

**18:00.** Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera. Opariak banatuko dituzte plazan.

### IRURA

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**11:30.** Haurrentzat hamaiketa-koa plazan.

■ **12:30.** Mari Domingi etorriko da Olentzerorentzat gutunak jasotzera. Erabiltzen ez diren

**12:00.** Erleta eskolatik plazara-ino joango dira kalejiran. Plazan gutunak bilduko dira.

**18:30.** Orantzaroaren etorrera. Abesbatzako kideek eta bertolariek harrera egingo diote. Ondoren, kalejiran herriko plazara joango dira. Bertan, Orantzaro pesta hasiko da, antzerki eta guzti. Maimur jentilen eta Orantzaroaren arteko elkarrizketak dira bitartean, Orantzaro enborra sutan erreko dute. Herriko dantzariak inguruan ibiliko dira dantzan.

### LIZARTZA

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**09:00.** Baserriz baserri ibiliko dira kantari. Arratsaldean, kalean.

**18:30.** Olentzero joango da plazara. Baserritarrez jantzita joatea eskatu dute.

### ORENDAIN

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**09:00.** Haur eta gurasoak plazan elkartu eta baserriz baserri kantuan ibiliko dira goizean zehar.

### OREXA

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**Arratsaldean.** Plazan elkartuko

dira herritarrak, han eta hemen kantuan ibiltzeko.

### TOLOSA

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**09:30.** Herrirak antolatuta, Kale Nagusiko Elkartasun dendaren aurrean, azken entsegua egingo dute. Ondoren, kantuan aterako dira.

**11:30.** Intxurre elkartearen hamaketakoa egingo dute Herrirak antolatuta.

**13:30.** Plaza Berrian, argazki erraldoia aterako dute, herriko presoei bidaltzeko.

**17:00.** Trianguloa plazan, postalak zein esku orriak banatuko dira, Espainiako bandera jartzaren aurkakoak. Ikurrinak erosteko aukera egongo da.

**17:30.** Olentzero eta Mari Domingi Izaskun auzotik jaitsiko dira. Nafarroako zubitik udallexera joango dira, kalez kale ibiltzeko. Euskal Herria plazan geldialdia egingo dute. Topic zentroko balkoitik herritarrak agurtuko dituzte. Udaberri dantza taldekoek dantza egingo dute. Ondoren, kalejiran Zerkausira joango dira, haurrei muxuak ematera. Kazkabarrakoei bertso batzuk botako dituzte.

**18:45.** Eskualdeko manifestazioa Trianguloatik abiatuta,

*Eskubide guztiekin, euskal preso eta iheslariak Euskal Herrira lelopean.*

### VILLABONA

■ **Abenduak 23, igandea**  
**18:00.** 'Herrira noa' ekimen kulturala Gurean.

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**17:30.** Otsabi auzoan, txoriko mokadutxoan banaketa.

**Ondoren.** Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria Otsabin. Kalejiran Errebote plazara joango dira. Haurrek bi protagonis-ekin hitz egiteko aukera izango dute. Musikariak, dantzariak... egongo dira Errebote plazan.  
**19:00.** Kalejira Olentzerorekin batera, ondoren, Giza Katea Iru Aldetatik abiatuta.

### ZIZURKIL

■ **Abenduak 24, astelehena**  
**Goizean.** San Millan ikastetxe-ko haurak baserrietan abestuko dute, eta Pedro Mari Otaño eta Jesusen Bihotzakoei Elbarrena auzoan. Ondoren, Urkamendi Elkartearen hamaiketako egingo dute.

**Goizean.** Herrirak antolatuta baserriz baserri ibiliko dira.  
**18:00.** Elkarretaratzea egingo dute Zizurkil Goian, euskal preso eta iheslarien alde.



Mari Domingi eta Olentzero, iaz bezala, Bidegoianera astoa lagun dutela gerturatuko dira. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
 Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
 urteurrenak  
 eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



19°  
12°

|             |          |
|-------------|----------|
| GOIZA       | LAINTUTA |
| ARRATSALDEA | LAINTUTA |
| BEROENA     | 21°      |
| HOTZENA     | 12°      |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zabalarreta, I. 943 67 38 49. Gauekoa: Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, I. 943 67 24 38.  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

**BIHAR**

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48. ■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

**ETZI**

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28. ■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

**ETZIDAMU**

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74. ■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112. ■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

**ABENDUAK 25**

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10. ■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112. ■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

**ABENDUAK 26**

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria 3. 943 67 09 15. ■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112. ■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**Agenda**

**DEIALDIAK**

■ **Zizurkil.** Elizpe erretiratuaren elkarteko txistor jatea gaur, 18:00etan.  
■ **Zizurkil.** Fraisoro zaharetxean gaur, 11:00etan San Tomas eguneko txistor jatea eta 17:00etan txapel jaurtiketa txapelketa; bihar 11:00etan Gabonetako loteria; astelehenean 11:30ean meza berezia, 16:30ean Malkar taldearen emanaldia eta 19:30ean Gabon gaueko afori berezia; asteartean 13:00etan bazkari berezia; eta asteazkenean 17:00etan bingoa.  
■ **Ibarra.** Kirol elkarteko urteko bigarren batzarra, gaur. Lehen deialdia 20:45ean eta bigarrena, 21:00etan.  
■ **Villabona.** Oria merkatarien elkarteak Gabonetako haur parkea jarriko du gaur, 16:30etik 19:30era, Bearzana frontoian. Bihar, 11:00etatik 13:00etara, txistulari plazan, Kulkiren eskal-jokoak; 17:00etatik 18:00etara udaletxeko plazatik abitatuta Bapatean taldearen esku jokoak...; eta 18:00etatik 20:00etara Berdura plazan, haurrentzako tailerrak. Era berean pintxo potea ere egingo dute 18:30etik 21:30era.  
■ **Tolosa.** Kikiklon txokoa Zer-

kausian, gaur eta bihar, 17:00etatik 21:00etara.  
■ **Altzo.** Bihar 17:30ean Zirko Eskola Txikia, frontoian, eta 19:30ean Xabier Amuriza bertsolari eta idazlearen *Xalbadorren bat bateko mirakulua* lana, 21:00etan herri aforia eta aforioaren Xalbadorren bertso ezagunenak kantatuko dituzte.  
■ **Tolosa.** Kirikiño aisialdi taldeak Tolosaldeko 12 urtetik beherako neska-mutilentzat Gabonei ongi etorria emateko Kiriki-Pin festa antolatuko du biharko; Hirukide ikastetxean izango da, 10:00etatik 14:00etara.  
■ **Tolosa.** Box.A elkarteko kideek bihar azoka egingo dute elkartearen tailerrean. 10:00etatik 22:00etara egongo dira bertan eta bizikletak, kamera zaharrak, kuadroak, laminak, motorrak, pitxikeriak, eskuz egindako arropa, tatuajeak, ilustrazioak... izango dira.  
■ **Tolosa.** Herritar talde batek trukeko azoka egingo du igandean, 10:30etik 14:00etara, Zerkausan.  
■ **Altzo.** Ikurrinari omenaldia egingo diote igandean, 12:00etan, plazan.  
■ **Tolosa.** Ikurrinaren aldeko ekitaldia Gabon egunean, astelehenean, 17:00etatik aurrera

Trainguloa plazan. Postalak eta ikurriak banatuko dituzte berondatearen truke.

**ARTE ESZENIKOAK**

■ **Alegia.** *Pepinos Podridos en el Frigo* antzezlan, gaur, 19:00etan, gaztetxean.  
■ **Tolosa.** *Etxean goxol* larunbatean, 18:30ean, Topic zentroan.

**MUSIKA**

■ **Tolosa.** Isidro Larrañaga akordeoi orkestra gaur, 19:30ean, Leidorren.  
■ **Altzo.** Olentzerotan Jakin-minezen barruan, gaur, Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua 18:00etan, elizan.  
■ **Villabona.** Eresargi abesbatzak Gabonetako ohiko kontzertua eskainiko du igandean, 12:00etan, elizan.  
■ **Tolosa.** Tolosako Orfeoia Gabonetako kontzertua eskainiko du larunbatean, 20:30ean, Leidor aretoan.  
■ **Tolosa.** Hodei Truk, Hodei Truk Hirukide, Hodei eta Hodeiertz abesbatzek Gabonetako kontzertua eskainiko dute igandean, 19:30ean, Santa Klara komentuko elizan.  
■ **Villabona.** Herrira Noa jaialdia

Villabonako Gurea antzokian igandean, 18:30ean.  
■ **Tolosa.** Musika Bandak kontzertua eskainiko du Gabon egunean, astelehenean, 12:30ean, Zerkausan.

**ZINEMA**

■ **Tolosa.** Igandean, 17:00etan, *El origen de los Guardianes*, eta 19:30etan eta 22:00etan *Reality*; asteartean, abenduak 25, 20:30ean *Reality*; eta asteazkenean, abenduak 26, 17:00etan eta 20:30ean *El Hobbit*.

**Agurrak**



**Zorionak!**  
**Garazi Urkizar Landa.**  
Abenduaren 23an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu pottoloak familiaren partetik.

**WALNUT**  
Gipuzkoa Plaza, 1  
Tolosa 20400  
943 69 85 46

belarrenda  
fitoterapia - omenkazio integrala

-Munduko esentziak: Edward Bach, Korte, Ysa, rebbe, ...  
-Kosmetika ekologikoak: Alkimiam, Rosa Bulgaria  
-Kremak eta baseko gela  
-Aromaterapia  
-Chakra  
-Liburuak

**Mauka**  
GAURKO ESKAINTZA

Oparitu luxuzko otordu bat prezio ezin hobean

ARGINDEGI OSTATUA  
IZKIO 73A80 2078  
3PLAZA  
Tel. 943 71 02 07

Prezioa **28€**

**www.mauka.eu** **berria**

**arregi**

30.ana kalea, 8 • 20400 TOLOSA  
Tel. 943 67 11 42  
www.arregi.com

Bisita gaitzazu